



Arrate Egaña idazlea, *Itzalen distira* narrazio bilduma berria eskuetan, atzo, Donostiako Udal Liburutegian. ANDONI CANELLADA/FOKU

Batzuen iluna, besteen argia

Arrate Egaña zortzi narrazio bildu ditu 'Itzalen distira' lanean • Kontrakotasunekin jolastu da idazlea ipuin gehienetan, eta denbora, heriotza, sakrifizioa eta beste hartu ditu hizpide

Ainhoa Sarasola Donostia

Adin, nortasun eta bizitza desberdinak dituzten hamaika pertsonaia sortu ditu Arrate Egaña idazleak, eta bat-batean arrotz bilakatu daitezkeen eguneroko

egoeretan jarri ditu. Osagai horiekin idatzitako zortzi ipuin jaso ditu *Itzalen distira* narrazio bilduma berria, eta, bakoitza independentea bada ere, estiloak eta zenbait gaik batasuna ematen diete. Baita liburuaren oinarrian dagoen ideia batek ere, idazlearen hitzetan: «Batzuentzat itzala dena argia izan daiteke beste batzuentzat; triste da, batzuetan krudela ere bai, baina askotan horrela da. Pertsona oso ezberdinak gara, bizitzan oso puntu desberdinetan gaude, eta horrelako egoerak gertatzen dira. Nik zure itzaletik argia hartu ahal dut». Erein argitaletxearekin plazaratu du Egaña lan berria, eta Uxue Razkin editoreak lagunduta aurkeztu du, Donostian.

Razkinen ustez, zaila izan ohi da bilduma batean independenteak diren narrazioen arteko loturak aurkitzea. Hala ere, Egañaren lanean sumatu dituen ildo batzuk aletu ditu editoreak: «Ipuin bakoitzaren planteamendua oso ezberdina da, ikuspuntua ere bai, baina oinarrian beti dago loturaren bat. Ipuin hauek irakurri nituenean, pentsatu nuen badutela

iluntasun puntu bat, oso gizatiarra dena eraberean». Ohikoak diren eta, aldi berean, arrotzak diruditen egoerak edo momentuak ere antzeman ditu testuetan, baita horien arteko talkak ere. «Uste



Ipuinen abiapuntuak eta ikuspuntuak ezberdinak dira, baina badaude gai batzuk edo estilo bat elkartzan dituztenak»

Arrate Egaña
Idazlea

«Narrazio hauek irakurri nituenean, pentsatu nuen badutela iluntasun puntu bat, oso gizatiarra dena eraberean»

Uxue Razkin
Erein argitaletxeko editorea

du narrazioak irakurtzean bekokia zimurtzen zaigula batzuetan; klik bat gertatzen da, eta pertsonaiek kezka edo arazo horri buelta nola emango ote dioten pentsatzen jartzen zara, zein izango den bilatuko duten irtenbidea, zein

izango den euren erabakia... Uste dut idazleak egunerokotasuna bihurtzen duela; ez dakizu zein izango den irtenbidea; batzuetan, hobe jakingo ez bagenu».

Hala, «egoera nahiko korapilatsuak» topatuko ditu irakurleak, eta pertsonaia, berriz, «antzezlan batean bezala, batetik bestera mugitzen», beren gogoetekin eta ekintzekin. Gaiei dagokienez, «obsesioa, ihes egiten duen denbora, heriotza, eta, batez ere, sakrifizioa» ageri direla esan du editoreak. Idazlea bat etorri da haren: «Ipuinen abiapuntuak eta ikuspuntuak oso ezberdinak dira, baina oinarrian badaude gai batzuk edo estilo bat denak elkartzen dituztenak. Uxuek aipatutako gain, zahartzaroa ere agertzen dela gehituko nuke, kezka hori ere badagoela, eta, horrekin lotuta, heriotzaren ingurukoa. Bi gai horiek oso indartsuak dira liburuan».

Baita sakrifizioaren ideia ere, Egaña itzalen eta argien irudierekin lotu duena. Hain zuzen ere, ilunen eta distiren, kontrakotasuneko ideien arteko «jokoa» landu du idazleak. «Planteatzen dut

beste batzuek proiektatzen edo sortzen duten itzala argigarria edo distira izan daitekeela beste batzuentzat». *Itzalak* ipuina jarri du adibide gisa: senideei zerbait esan nahi, baina zalantzan dauden hiru emakume ageri dira hant: «bat-batean, egoera ilun bat gertatuko da, dena eklipsatuko duena eta haiei bidea erraztuko diena», azaldu du egileak. Editorearen ustez, «ipuin guztietan beti dago une bat non logika edo koherentzia irauli egiten den; eszena ohikoa da, egunerokotasunean topatzen ahal duguna, baina bat-batean klak egiten du zerbait, eta dena askatzen da».

Egaña adierazi du bere ohiko estiloan idatzi dituela narrazioak, eta hizkuntza «nahiko zuzena eta zehatza» baliatu duela. «Horretan saiatzen naiz; niri gustatzen zaidan literatura horrelakoa da». Halaber, askotariko emakumeek liburuan duten presentzia azpimarratu du. «Igual ez dira heroiak edo oso nabarmentzekoak, baina niretzat emakumetik abiatzen da dena; protagonista izan edo ez, haren rola beti dago presente». Gaineratu duenez, gustuko du pertsonaien psikologian sakontzea, baina haien gogoeten edo elkarrizketen bidez batez ere, emozioen bitartez baino gehiago.

Gelaz gela eraikia

Razkinek azaldu du duela urtebete jaso zuela ipuinen lehen zirriborroa, eta argitara ateratu dituen liburua ez duela zerikusirik handirik testu harekin. «Izan ere, hori da lan honen gauzarik ederrena, testu bat idatzi eta haren gainean berriaztea eta berridaztea». Idazlearen literaturarekiko «pasioa» erakusten du sortze prozesuak, editorearen iritziz: «Gauzak ongi egiteko gogoa eta lana daude liburu honen oinarrian».

Egaña esplikatu du gela askoko etxe baten gisan irudikatutako bilduma, eta ipuin bakoitza, berriz, gela baten gisan. «Ipuin batzuk ez ziren familia honetakoak, eta bazter utzi genituen; giltzaz itxi nituen gela horiek. Beste gela batzuk altzariz jantziagoak zeuden, eta beste batzuek, ordea, paretak margotzea behar zuten, denetan baitoeluzen ideiak hasieratik, baina, batzuetan, nahiko biluzik bezala». Gelaz gela joan zen, beraz, etxea osatuz. «Prozesu luzea eta motela izan da gela guztiak apaintzea, baina behar zuena hartu du; ez dut presa sentitu, eta lasai aritu gara, gela guztiak itxi arte».

Azaleko irudia ere Egañarena da; margolan handiago baten zati txiki bat da, sakrifizioaren ideiarekin eta argi-itzalekin lotuta.

Eibarko Udala
IRAGARKIA

TIBURTIZO ANITUA KALEKO 17AN IGOGAILUA JARTZEKO NAHITAEZ OKUPATU BEHAR DIREN ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA.

- 1 ZK.KO PARTZELA

Erabilera-eskubidearen titulartasuna: 72582016L eta 15386786Q

Katastroen duen izara: Hiru-finka:

Katastroaren erreferentzia: 4281143

Erregistroaren erreferentzia: Eibarko 500, finka.

Deskribapena: Eskailera-zuloaren azpian dagoen espazioa. Erdizkako aprobetxamen-dua edo erabilera 5418 eta 5419 finkei egotzen zaie.

Okupazioa: Sartu eta ezkerakidean eta eskaileraren azpian dagoen 1,6 m²-ko azalera baten erabilera; espazio hori igogailu-hobiak okupatuko du. Eskailera azpian dagoen espazioaren 3,6 m²-ko azalera 1 hilabetez okupatzea aldi baterako.

Eibarren, 2022ko maiatzaren 30ean
ALKATEAK.- Jon Iraola Iriondo